Lezoko Unibertsitateko Udala

Badihardugu

H17/00014 **HITZARMENA**

LEZOKO AHOTSAK PROIEKTUA BIDERATZEKO LEZOKO UDALAREN ETA BADIHARDUGU EUSKARA ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Lezon, 2017ko maiatzaren 23an

Lezoko Udaletxean, goian aipatzen den egunean, **BILDURIK**

ALDE BATETIK: JESUS MARIA MARTIARENA JACA jaunak, Lezoko Udaleko Alkatea indarrean dauden legeek eskumentzen dioten ahalmena eta emandako ordezkaritza erabiliz, haren izen eta ordezkaritzan diharduela.

BESTE ALDETIK: ASIER SARASUA ARANBERRI jaunak, Badihardugu Euskara Elkarteko lehendakaria, Eibarko Markeskoa Jauregia, Otaola hiribidean helbidea eta IFK G20733416 duena, erakunde horren izenean eta ordezkaritzan.

A D I E R A Z T E N D U T E :

1.- Lezoko Udalak herriko hizkera jasotzeko interesa duela eta orain arte euskalkiari buruz bildu den materiala eta honen ondoren aterako den material berria antolatu eta nahi dutenek erabiltzeko eta kontsultatzeko moduan jartzeko interesa duela.

2.- Badihardugu Euskara Elkarteak, herri hizkerak biltzeaz eta indartzeaz arduratzen denak, *Ahotsak.eus* proiektua, *Euskal Herriko hizkera eta ahozko ondarea,* jarri zuen martxan, Euskal Herriko herri ezberdinetan egin diren eta egiten ari diren bilketa etnolinguistikoak koordinatzeko eta berriak egiteko asmoarekin eta, ondorioz, lan hau egiteko interesa azaldu zuela.

3.- 2017ko martxoaren 22ko Tokiko Gobernu Batzordean, Lezoko ahozko ondarea jaso, antolatu eta hedatzeko proiektua egitea erabaki zen. Beraz, ondokoa adierazi zen:

LEHENA:- Badihardugu Euskara Elkartearekin Lezoko ahozko ondarea jaso, antolatu eta hedatzeko *Lezoko Ahotsak* proiektua egitea.

BIGARRENA:- Badihardugu Euskara Elkartearekin aipatutako proiektua egiteko duen gastua onartzea.

4.- Aipatutako erabakia gauzatzeko eta apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegintzako 113.6 artikuluan xedatutakoa betez, hitzarmen hau legezko egiten dela, honako klausula hauen arabera

Lezoko Unibertsitateko Udala

Badihardugu

KLAUSULAK

LEHENA.- Badihardugu Euskara Elkarteak Lezoko ahozko ondarea jaso, antolatu eta hedatzeko proiektua egitea, honako eginkizunak betez:

a) 7 elkarrizketa berri egin (bideoz).
b) Lezoko Udalaren esku, halakorik balego, lehendik dauden zintak digitalizatu eta segurtasun kopiak egin.
c) Egingo diren grabazio berrien artetik eta dagoeneko badaudenetatik 23 zintaren kodifikazioa (minutuz minutuko laburpena) egin, eta grabazio bakoitzaren informazio guztia Datu Basean txertatu.
d) Pasarterik interesgarrienak aukeratu eta horietako 10 transkribatu.
e) Datu-basea antolatu: informazio guztia batuko duen datu-basea antolatu eta informazioa bertaratu: informazio orokorra, oharrak, transkribapenak, soinu-artxiboak, kodifikazioak, eta abar.
f) Pasarteen bideoak atera eta Interneterako prestatu (700pasarte).
g) Jasotako guztia interneten ipini.

BIGARRENA.- Hitzarmen honen prezioa, **BEDERATZI MILA HIRUREHUN ETA HIROGEI EURO**koa (9.360,00€) izango da, 3 ekitalditan banatuta:

- 2017. urtean: **3.075,00 €**
- 2018. urtean: **3.142,50 €**
- 2019. urtean: **3.142,50 €**

Prezioa orokorra izango da; beraz, kontzeptu honen barruan sartuko dira lan egiteak dakartzan gastuak eta zergak, industria-onura, gastu orokorrak eta hitzarmenaren xedea burutzeko behar diren gainontzeko gastuak ere.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren xedearen prezioa honako era honetan ordainduko da:

- 2017ean: %50 hitzarmena sinatutakoan, %50 abenduan memoria eta diru-zuriketak egin ondoren.

- 2018 eta 2019an: %70 apririlean, %30 abenduan memoria eta diru-zuriketak egin ondoren.

Kasu guztietan, ordainketa egin aurretik, Lezoko Euskara zerbitzuak ordura arte egindako lanaren txostena jasoko du eta berau azaldu egingo da. Horrez gain, euskara teknikariak egoki ikusiz gero, edonoiz eskatu ahal izango du lanaren nondik norakoen berri.

Ordainketak Badihardugu elkarteak emandako kontu zenbakian egingo dira.

Hitzarmen honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea, aurreikusitako iraupena kontuan harturik.

LAUGARRENA.- Hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera, seihilero, Badihardugu Euskara Elkarteak lanaren martxaren berri dakarren txostena emango dio Udalari eta horretarako egingo den bileran azalduko du. Dokumentua, Euskara Zerbitzuko teknikariak aztertu eta udal ordezkariek onespena emango die.

BOSGARRENA.- Badihardugu elkartearen eta Lezoko Udalaren arteko koordinazioa eta komunikazioa erraza, etengabea eta erabatekoa izan dadin, hitzarmen honen xede den proiektua burutzeko elkarteak hautatutako langilea(k) Udal bulegoak zabalik dauden ordutegian (9:00etatik 14:00etara) Euskara Zerbitzuarekin harremanetan eta koordinazioan arituko d(ir)a.

SEIGARRENA.- Hitzarmen honen xedea lortzeko, sinatzaileek ados jarrita honako ekarpen eta konpromiso araubidea ezarri dute:

ELKARTEAREN ALDETIK

1.- Badihardugu elkarteak konpromisoa hartu du hitzarmen honen xede den proiektua egiteko behar diren ekintza guztiak burutuko dituela, hitzarmenean bertan ezarritako klausulen arabera.

2.- Jasotako diru kopurua Hitzarmen honetan ezarritako helburuetarako soilik erabiliko duela.

3.- Konpromisoa hartuko du hitzarmen honen xedea egokiro garatzeko behar diren giza-baliabide eta material guztiak jarriko dituela, bai eta proiektua behar bezala egiteko behar diren langile teknikoak ere. Halaber, Elkarteak honako hitzarmen honen laugarren klausulan ezarri diren obligazioak bete beharko ditu.

4.- Elkarteak erantzungo du hitzarmen hau deuseztatzeak eragin ditzakeen balizko kalte-ordainen aurrean.

5.- Hitzarmenaren xedea garatzeko eta betetzeko beharrezkoak diren baliabideen kontrol eta funtzionamenduaren gaineko erantzukizuna izango du eta xedea betetzen dela ziurtatuko du.

6.- Elkarteak hitzarmen honen laugarren klausulan adierazitako txostena, eta eska dakizkiokeen beste batzuk ere, eman beharko dizkio Lezoko Udalari.

7.- Hitzarmenaren xedea lortzeko Badihardugu elkarteak sortu eta erabiliko duen material guztia Lezoko Udalaren eskura egongo da.

8.- Badihardugu elkarteak sortutako audio/bideo zein idatzizko material guztiaren kopia bat emango dio Lezoko Udalari, Udaleko artxiboan gordetzeko.

9.- Proiektuaren edukian eta berau burutzeko baldintzetan eragina izan dezakeen gorabeheraren bat gertatuz gero, Badihardugu elkarteak berehala horren berri emango dio Lezoko Udalari.

10.- Hitzarmen honen ondorioz sortutako lanaren jabetza eskubide guztiak Udalarenak izango dira eta CC lizentziapean banatuko dira.

11.- Badihardugu elkarteak Euskal Herriko Ahozko Ondarea jaso, landu eta zabaltzeko ahaleginetan egiten duen lana aitorturik eta lan horiei ahalik eta zabalkunderik handiena emateko asmoarekin, Udalak egokitzat jotzen du bere jabetzako materialen kopia bat jasotzeko aukera eskaintzea Badiharduguri, interesa azaltzen badu. Edozein eratara ere, materialok hitzarmen honen helburuarekin bat datozen ekimenetarako (herri-hizkera bildu eta indartzeko) erabili beharko dira eta lanon jabea Udala dela adierazi beharko du, erabiltzen den kasu guztietan.

12.- Hitzarmen honetan adostutakoa betetzeko Badihardugu elkarteari izaera pertsonaleko daturik emanez gero, Elkarteak Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoa beteko du. Badihardugu elkarteak ezingo du datu hauek erabili hitzarmenaren xedearekin loturik ez dituen helburuetarako, ez eta hirugarrenei lagapenez eman ere. Hitzarmena amaituz gero, Badihardugu elkarteak tratatu diren izaera pertsonaleko datuak Udalari itzuliko dizkio.

LEZOKO UDALAREN ALDETIK

1.- Badihardugu elkartearekin lankidetzan aritzea hitzarmena egokiro betetzeko.

2.- Proiektuaren betearazpena koordinatzea eta horren bilakaeraren jarraipena egitea.

3.- Gehienez, ordainduko den zenbatekoa 2017ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra arte BEDERATZI MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEI EURO (9.360,00€) izango da, bigarren klausulan aipatutako ekitaldi eta kopuruen arabera eta baita hirugarren klausulan adierazitako eran.

4.- Udalak izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoa beteko du.

ZAZPIGARRENA.- Badihardugu Euskara Elkarteak hitzarmen honetan hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, beste aldeak eska dezake hitzarmena xuxen betetzea edota bertan behera uztea, eta hartara, Lezoko Udalak ordura arte egindako diru ekarpenak osorik itzultzea.

ZORTZIGARRENA.- Hitzarmena esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, eta esleipendunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Halaber, bere konturakoak izango dira lan hauen edo euren exekuzioaren ondorioz sortutako gastu guztiak.

BEDERATZIGARRENA.- Hitzarmena, Lezoko Udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Lezoko Udalak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

HAMARGARRENA.- Herri-onurako arrazoiak direla eta, Lezoko Udalak hitzarmena aldatzea izango du, behar berriak edo uste gabeko arrazoiak sortzen direnean. Badihardugu elkarteak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

Badihardugu elkarteak Lezoko Udalaren aurretiazko baimenik gabe egiten dituen aldaketek ez dute Lezoko Udalaren inolako betebeharrik sortuko.

HAMAIKAGARRENA.- Hitzarmenaren xedea gauzatzeko epea eta beraz hitzarmenaren indarraldia 2017ko urtarrilaren 1etik 2019. urteko abenduaren 31ra artekoa izango da.

HAMABIGARRENA.- Hitzarmen hau indarrik gabe geratuko da kasu hauetan:

a) Sinatzaileak ados jarrita: idatziz agerrarazi behar dute.
b) Hitzarmenaren indarraldia amaitzen denean.
c) Sinatzaileetako batek hitzarmen honetan hartutako konpromisoak betetzen ez baditu.
d) Hitzarmenaren xedea ezin betetzea. Ezintasuna arrazoitu egin beharko da.
e) Aldeetako batek hitzarmenari uko egitea. Bi (2) hilabete aurretik jakinarazi behar du.
f) Zuzenbidean egokia den beste edozein arrazoirengatik.

Agiri hau irakurri ondoren, aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko eta honela jasota gera dadin, bi alderdiok sinatzen dute hitzarmen hau, bi aletan, ondorio bakarrerako goian aipatzen diren toki eta egunean.

LEZOKO UDALEKO ALKATEA

Izp: Jesus Maria Martiarena Jaca

BADIHARDUGU EUSKARA ELKARTEAREN LEHENDAKARIA

Izp.: Asier Sarasua Aranberri

Badihardugu
Deba Ibarreko Euskara Elkartea